Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

*Santiago Presto Sario*

*Erroibar, Nafarroa (1926)*



Aurkibidea

# Biografia



Erroibar Udalerriko Lintzoain herrian jaioa, udalerri bereko Erro herrian bizi da egun. Lintzoain herri euskalduna omen zen bere ume-denboran. Gaztetan Ameriketan egon zen artzain. Oso bizimodu gogorra omen zen. Erron abeltzaintzara dedikatu da bizi osoan. Ikazginan ere jardun zuen garai batean. Erakusketa gisa ere egin ditu txondorrak hainbat lekutan, Iruñean esaterako. Alaba bat biologoa du, Lekunberrin egiten du lan gaztagintza gaietan. Badaki euskaraz.

# Zintak

### ERB-002

- **Proiektua**: Alex Artzelus Mujika
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Data**: 2009-08-10
- **Iraupena**: 24 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Elexpuru, Juan Martin
- **Emalea**: Artzelus, Alex

# Pasarteak

### 1. Eskualdean geratzen diren euskaldunak

- **Erref**: ERB-002/002
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:00:08. **Bukatu**: 00:01:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Bizkarretan ez da euskaldunik. Mezkiritzen bada bat eta Zilbetin ere bai beste bat.

### 2. Ameriketan artzain

- **Erref**: ERB-002/003
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:04:25

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena**:
<p>Etxean ikasi zuen euskaraz. Ameriketan egon zen artzain 11 urtez. Ez zen diru asko irabazten baina kanbiora oso ongi irteten zen. Han diru pixka bat egin eta itzuli zenean ezkondu egin zen. Abeltzaintzara dedikatu da. Ez zuen fabrika maite.</p>

## 3. Alaba nagusiak badaki euskaraz

- **Erref**: ERB-002/004
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:06:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Alaba biologoa du. Badaki euskaraz. Lekunberrin egiten du lan gaztagintza laborategian. Beste alabak ez daki. Erron gutxi egiten da. Kazetaria omen den herriko euskaldun batez mintzatzen da.

## 4. Nevadako artzaintza kontuak

- **Erref**: ERB-002/005
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:06:48. **Bukatu**: 00:10:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena**:
Oso bizimodu gogorra artzainena Ameriketan. Urtebete eta gehiago egon ohi ziren herrira jaitsi gabe. Zenbaitek irabazten zuen guztia gastatzen zuen. Koioteekin ibiltzen ziren larri.

## 5. Arbaso guztiak euskaldunak

- **Erref**: ERB-002/007
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 00:12:10. **Bukatu**: 00:13:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Euskara
- Euskara » Euskararen egoera

**Laburpena**:
Emaztea etxe honetakoa du (Erro) baina gutxi egiten du euskaraz. Haren "apitxik" (aitonak) bazekien. Bere arbaso guztiek egiten zuten. Umetan erdara gutxi zekiten. Eskualdeko zenbait herritan dauden euskaldun apurren berri ematen du: Usetxi-n, Aurizberri-n...

## 6. Ikazkinan ibilia

- **Erref**: ERB-002/009
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:16:51. **Bukatu**: 00:19:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

**Laburpena**:
<p>Txikitatik lanean. Ikazkintzan ere ibilitakoa da gaztetan. Erakusketa gisa ere egin du harrezkero Iruñean-eta. Txondorra nola egiten den kontatzen du</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-07*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com